# SAISON QUÉBEC PAYS BASQUE

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

EUSKADI BASQUE COUNTRY

#QCPAYSBASQUE

SAISON QUÉBEC PAYS BASQUE

Euskal Herria eta Quebec aspaldidanik elkar ezagutzen duten lurraldeak dira. Duela bost mende euskal baleazaleak Quebec-eko kostaldera iritsi zirenean hasi zen gaur arte mantentzen den harremana.

Egungo harreman hori ikuspegi partekatu batetik abiatzen da; aniztasun kultural eta linguistikoaren babesa, berrikuntzaren aldeko apustua, larrialdi klimatikoari aurre egiteko konpromisoa eta etorkizuneko erronkekiko begirada komun bat.

Saison Québec-Pays Basque 2021-2022 (Quebec – Euskadi 2021-2022 denboraldia) egitasmoak gure sortzaileen bikaintasuna azpimarratu; alor artistiko eta akademikoan elkarlana indartu; eta artista, sortzaile eta profesionalen hartu-emana sustatu; eta azken finean, hizkuntza, kultura eta sorkuntza garaikidearen bidez, bi nazioen arteko elkar ezagutza eta harremana estutzen ditu.

Bi lurraldeetako jaialdietan garatzen den diziplina anitzeko programaren bidez, Quebeceko publikoari euskal kulturaren sormena ezagutzeko aukera eskaintzen diogu, eta alderantziz. Gozatu!

Quebec y Euskadi han tenido contacto desde hace mucho tiempo. La relación entre ambos territorios, que comenzó hace cinco siglos a través de los balleneros vascos, se mantiene viva hoy en día.

Una relación que parte de una visión compartida con respecto a la protección de la diversidad cultural y lingüística, la apuesta por la innovación y el compromiso con el medio ambiente y para hacer frente al cambio climático.

La Saison Québec-Pays Basque 2021-2022 (Temporada Québec – Euskadi 2021-2022) nos permite poner en valor la excelencia de nuestros/as creadores/as, potenciar la colaboración en el ámbito artístico y académico, fomentar el intercambio de artistas, creadores/as y profesionales y, en última instancia, fortalecer el conocimiento mutuo y la relación entre ambas naciones a través de la lengua, la cultura y la creación contemporánea.

Mediante un programa multidisciplinar que se desarrolla en diversos festivales de ambos territorios, ofrecemos al público quebequés la oportunidad de descubrir la creatividad cultural vasca, y viceversa. ¡Que lo disfruten!

**Irene Larraza**
Zuzendaria / Directora
Etxepare Euskal Institutua

# EUSKADI DENBORALDIA QUEBECEN

## TEMPORADA EUSKADI EN QUEBEC

# LITERATURA ETA LIBURUAK

## LITERATURA Y LIBROS


gutun
zuria
bilbao

# Itzultzaile Berriak / Nouveaux Traducteurs

**2021.04.01 – 2022.07.01**

EIZIE | Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao | Etxepare Euskal Institutua

Nazioarteko literatura itzultzaileak euskaraz trebatzea eta nazioarteko literatura itzultzaileen eta bertakoen arteko zubiak eraikitzea. Horixe da Itzultzaile Berriak egitasmoaren xedea. Egitasmoaren bigarren edizioa izan den honetan, deialdi publiko bidez, Quebeceko bi itzultzaile hautatu dira. Biek, EIZIEko kide den Aiora Jaka itzultzailearen mentoretzaren bidez, euskararen ezagutzan eta itzulpengintzan sakondu dute, eta hainbat euskal idazleren testuen laginak itzuli dituzte. Gainera, Michel Usereauk egonaldia egingo du 2022ko uztailean euskarazko eskolak jasotzeko eta euskal literaturara hurbiltzen jarraitzeko. Bestalde, Bilboko Gutun Zuria letren jaialdiaren baitan, apirilaren 2an, 'Itzultzaile Berriak: mugarik gabeko literatura´ izeneko solasaldian hartu dute parte itzultzaile berriek (Yannick Bédard eta Michel Usereau) eta jatorrizko lanen idazleek (Uxue Alberdi eta Garazi Arrula).

Formar a traductores/as internacionales de literatura en euskera y construir puentes entre traductores/as internacionales y autóctonos/as. Este es el objetivo del proyecto Itzultzaile Berriak (Nuevos Traductores). En esta segunda edición del proyecto han sido seleccionados, mediante convocatoria pública, dos traductores de Quebec. Con el acompañamiento de la traductora y miembro de EIZIE Aiora Jaka, ambos han profundizado en su conocimiento del euskera y de la traducción literaria, y han realizado traducciones de textos de escritores/as vascos/as. Adicionalemente, Michel Usereau llevará a cabo una estancia en 2022 para recibir clases de euskera y seguir acercándose a la literatura vasca. Los dos traductores, Yannick Bédard y Michel Usereau, participaren en la mesa redonda , 'Itzultzaile Berriak: mugarik gabeko literatura´ que tuvo lugar en festival de las letras Gutun Zuria de Bilbao, y que contó con la participación de Uxue Alberdi y Garazi Arrula, autoras de algunos de los textos que fueron traducidos en el marco del proyecto.

| **Itzultzaileak** / Traductores | **Mentorea** / Mentora | **Laginak** / Muestras |
|---|---|---|
| Yanick Bédard | Aiora Jaka | 'Abian' (Garazi Arrula) |
| Michel Usereau | | 'Ederra eta piztia' (Garazi Arrula) |
| | | 'Oreina' (Uxue Alberdi) |
| | | 'Ezertan lagun zaitaket? (Uxue Alberdi) |
| | | 'Arrokarik altuena' (Harkaitz Cano) |
| | | 'Safaria' (Harkaitz Cano) |



# Chejov vs. Shakespeare

**2020.06.15 – 2022.11.12**

Maison de la Littérature Literaktum Donostia Euskal Irudigileak

Amos Oz idazle israeldarrak idatzi zuen bi modu daudela gatazkak literatur ikuspegitik ulertzeko: Shakespeareren “justizia poetikoa” eta Txekhoven “justizia tristea”. “Lehenengoan, inork ez du amore ematen, printzipioak eta ohorea edozeren gainetik daude, baita bizitzaren gainetik ere, baina agertokia odolez betetzen da. Bigarrenean, berriz, pertsonaiek beraien desadostasunez eztabaidatzen dute, auziok konpontzen dituzte, eta, amaieran, etxera itzultzen dira, nahiko etsita. Baina bizirik”.

Gatazkaren (hitza zentzu zabalenean ulertuta) inguruko gutun bidezko elkarrizketa da egitasmoaren abiapuntua. Lehenago beste idazle batzuk parte hartu ostean (James Robertson & Iban Zaldua, Bashkim Shehu & Bernardo Atxaga, Mircea Cartarescu & Luisa Etxenike, etab.), edizio honetan Jean Désy idazle quebectarra eta Aurelia Arkotxa euskal idazlea eta izan dira protagonista. Seina gutun bidali dizkiote elkarri akulturazioa, kolonialismoa eta kultur aniztasuna mintzagai hartuta. Korrespodentzian jasotako ezagutza, iritzi eta hausnarketa intimoak liburu batean plazaratu dira eta Québec en touttes lettres eta Donostiako Literaktum jaialdietan aurkeztu. Liburuaren azala Euskal Irudigileak elkarteko kide batek ilustratu du lehiaketa bat egin ostean.

El escritor israelí Amos Oz escribió que hay dos maneras de entender los conflictos desde el punto de vista literario: la “justicia poética” de Shakespeare y la “triste justicia humana” de Chejov. “En la primera, nadie se rinde, los principios y el honor están por encima de todo, incluso de la vida, pero el escenario se llena de sangre. En la segunda, los personajes discuten sobre sus desacuerdos, los resuelven y al final vuelven a casa bastante frustrados, pero con vida”.

El punto de partida del proyecto es el diálogo epistolar sobre el concepto de conflicto (entendido en su sentido más amplio). Tras haber participado anteriormente otros/as escritores/as (James Robertson & Iban Zaldua, Bashkim Shehu & Bernardo Atxaga, Mircea Cartarescu & Luisa Etxenike, etc.), esta edición la han protagonizado el escritor quebequés Jean Désy y la escritora vasca Aurelia Arkotxa. Han intercambiado seis cartas en las que han tratado sobre temas como la aculturación, el colonialismo y la multiculturalidad. Los conocimientos, opiniones y reflexiones íntimas recogidas en esa correspondencia han publicadas en un libro que se ha presentado en los festivales Québec en touttes lettres y Literaktum. La portada del libro ha sido ilustrada por una artista miembro de la asociación Euskal Irudigileak, previa celebración de un concurso.


Roland

# Québec en toutes lettres 2021

**2021.10.14 – 24 / Québec**

Maison de la Littérature Etxepare Euskal Institutua

Québec hirian 2010. urtetik egiten den jaialdi enblematiko honek diziplina aniztasunari eta diziplinartekotasunari estuki lotutako literatura aurkezten du. Programazioa hiru osagai nagusiren inguruan egituratzen da: emanaldiak eta ikuskizunak; egileekin topaketak eta mahai-inguruak, instalazioak eta zuzeneko artea espazio publikoan.

Este emblemático festival que se celebra en la ciudad de Quebec desde 2010, presenta una literatura íntimamente ligada a la multidisciplinariedad y la interdisciplinariedad. La programación se estructura en torno a tres componentes principales: actuaciones y espectáculos; encuentros y mesas redondas con autores, e instalaciones y arte en directo en el espacio público.

## Soirée découverte Accent basque

**2021.10.14 – 24 / Musée de la civilisation / Québec**

Euskal literaturari buruzko mahaingurua egin zen Katixa Agirre, Itxaro Borda eta Kirmen Uriberekin. Halaber, Chejov vs. Shakespeare egitasmoaren baitan, Jean Désy eta Aurelia Arkotxa idazleen arteko gutun trukaketa jasotzen duen liburua aurkeztu zen. Ekitaldiak, bertsolaritza ikuskizuna eta Trio Zukanen emanaldiarekin jarraitu zuen, eta, amaitzeko, entzulegoak euskal produktuen dastaketaz gozatzeko aukera izan zuen.

Tuvo lugar una mesa redonda sobre literatura vasca con la participación de Katixa Agirre, Itxaro Borda y Kirmen Uribe. Asimismo, como parte del proyecto Chejov vs. Shakespeare, se presentó el libro que recoge el intercambio epistolar entre Jean Désy y Aurelia Arkotxa. El acto continuó con un espectáculo de bertsolarismo y la actuación de Trio Zukan, y concluyó con una degustación de productos vascos.

## Nuit de la poésie

**2021.09.09 – 24 / Musée national des beaux-arts du Québec / Québec**

Quebeceko literatur eszenan ezinbesteko bilakatu den hitzordu honek ahots ospetsu eta emergenteak biltzen ditu tonu eta estilo anitzeko ekitaldi eklektiko batean. Itxaro Borda idazleak hartu du parte, beste hainbat idazlerekin batera.

Esta cita imprescindible en la escena literaria de Quebec, reúne a voces consagradas y emergentes en un acto ecléctico de múltiples tonos y estilos. El evento ha contado con participación de la escritora Itxaro Borda.



# Nazioarteko komiki sorkuntza egonaldia / Residencia internacional de creación en cómic

**2021.01.26 – 04.28**

Maison de la Littérature   Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image

Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao   Etxepare Euskal Institutua

Komikiaren esparruan sorkuntza sustatu, hainbat herrialdetako artisten arteko topaketa bultzatu eta beste diziplina garaikide artistiko batzuetako artistekin konexioak sortzeko helburuz nazioarteko komiki egoitza bat jarri dute abian elkarlanean Quebeceko Maison de la Littérature, Bilboko Azkuna Zentroa eta Angoulêmeko Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image zentroek. Higinia Garay, Jimmy Beaulieu eta Marine des Mazery artistak izan dira artista hautatuak. Egoitza gurutzatu hauek Angoulêmen (hilabete bat, 2022ko urtarrilaren amaieratik otsailaren amaierara), Bilbon (hilabete bat, 2022ko otsailaren amaieratik apirilaren hasierara) eta Quebec-en (hilabete bat, 2022ko apirilean) egin dituzte eta hiru egonaldiek jaialdi batekin egin dute bat: Angoulêmeko Nazioarteko Komiki Jaialdia, Gutun Zuria Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia eta Quebec-eko Québec BD Jaialdia.

La Maison de la Littérature de Quebec, Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao y la Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême han puesto en marcha una residencia internacional con el objetivo de promover la creación en el ámbito del cómic y propiciar el encuentro entre personas de diferentes países, en entornos profesionales clave de la novela gráfica, conectando con artistas de otras disciplinas contemporáneas artísticas. Los/las artistas seleccionados/as han sido Higinia Garay, Jimmy Beaulieu y Marine des Mazery. Estas residencias cruzadas se han desarrollado en Angoulême (un mes entre finales de enero y finales de febrero de 2022), Bilbao (un mes entre finales de febrero y principios de abril de 2022) y Quebec (un mes en abril de 2022) y las tres estancias han coincidido con un festival: el Festival Internacional de Cómic de Angoulême, el Festival Internacional de las Letras de Bilbao Gutun Zuria y el Festival Québec BD de Quebec.



# Festival International de la Poésie de Trois-Rivières 2022

**2022.09.30 – 10.09 / Trois-Rivières**

Festival International de la Poésie de Trois-Rivières   Etxepare Euskal Institutua

1985. urtetik, udazkenero, Trois-Rivières poesiaren hiriburu bihurtzen da 10 egunez. Goizetik gaueko ordu txikietara, Quebec, Kanada eta nazioarteko poeta eta idazleen emanaldiez gozatu daiteke.

Itxaro Borda euskal idazleak parte hartzeaz gain, bi saio eskainiko dituzte Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Danele Sarriugarte idazleek. Lehenbizikoak, 'Borderlands/Mugaldeak', euskaratik, feminismotik eta ahotsetik idaztearen inguruko hausnarketa eta eztabaida proposatzen du. Nolakoak dira hizkuntzaren, gorputzaren eta ahotsaren entzunmugak, ikusmugak eta esanmugak? Zer esan, idatz eta entzun daiteke hizkuntza gutxituetan? Bigarrena bertsolaritzaren inguruko saioa izango da.

Desde 1985, cada otoño, Trois-Rivières se convierte en la capital de la poesía durante 10 días. Desde la mañana hasta altas horas de la noche, se puede disfrutar de las actuaciones de poetas y escritores de Quebec, Canadá e internacionales.

Además de contar con la participación de Itxaro Borda, el festival acogerá sendos eventos protagonizados por las escritoras Uxue Albrdi, Miren Amuriza y Danele Sarriugarte. El primero, 'Borderlands/Mugaldeak' propone un reflexión sobre la escritura partiendo del euskera, el feminismo y la voz. ¿Cómo son los horizontes de la lengua, el cuerpo y la voz?, ¿qué se puede decir, escribir y escuchar en lenguas minorizadas? El segundo evento girará en torno al bertsolarismo.

# ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

# CINE Y AUDIOVISUALES


Cycles
Basques contemporains

# Cinémathèque Quebecoise

Cinémathèque Quebecoise   Euskadiko Filmategia   Bureau du Québec à Barcelone   Etxepare Euskal Institutua

Saison Québec – Pays Basque programaren baitan quebectar eta euskal zinema deskubritzeko zikloak antolatu dituzte Euskadiko Filmategiak eta Cinémathèque Quebecoisek. Quebeceko zine zikloa 2021eko apirilaren 1etik ekainaren 26era egin zen Tabakaleran (Donostia) eta Bilboko Arte Ederren Museoan, eta ekoizpen garaikidea izan zituen ardatz nagusi. Euskal zine zikloa berriz 2021ko irailean burutu zen Montrealen. 2022ko irailean bigarren euskal zine ziklo bat eskainiko da hiri horretan.

La Filmoteca Vasca y la Cinémathèque Quebecois han organizado varios ciclos para descubrir el cine vasco y quebequés en el marco del programa Saison Québec – Pays Basque. El ciclo de cine de Quebec tuvo lugar del 1 de abril al 26 de junio de 2021 en Tabakalera y el Museo de Bellas Artes de Bilbao, con la producción más contemporánea como eje. El ciclo de cine vasco tuvo lugar en septiembre de 2021 en Montreal. En septiembre de 2022 la Cinémathèque Quebecoise acogerá un nuevo ciclo de cine vasco.

**Basques Contemporains**
**2021.09.09 – 24 / Cinémathèque Quebecoise / Montreal**

Ziklo honek azken hamarkadetako euskal zineari begiratzen dio. Filmen aukeraketa ekuazio erraz batean oinarritu da, ikuspegi, estilo eta gaien aniztasuna baloratuz. Ez dago egile nagusirik ekoizpen osoa behatzeko, baizik eta zinematografia kaleidoskopikoa marrazten duten ikuspuntu ugari.

Este ciclo mira cine vasco producido en las últimas décadas, basándose en una ecuación sencilla: diversidad de enfoques, estilos y temas. No existe un/a autor/a principal para observar la producción en su conjunto, sino múltiples puntos de vista que dibujan una cinematografía caleidoscópica.

| | |
|---|---|
| 'Tasio' | Montxo Armendariz, 1984 |
| 'Vacas' | Julio Médem, 1992 |
| 'Ander' | Roberto Castón, 2009 |
| 'Amama' | Asier Altuna, 2015 |

| | |
|---|---|
| ‘Un otoño sin Berlín’ | Lara Izagirre, 2015 |
| ‘Irrintziaren Oihatzunak’ | Iratxe Fresneda, 2016 |
| ‘Handia’ | Jon Garaño, Aitor Arregi, 2017 |
| ‘Dantza’ | Telmo Esnal, 2018 |
| ‘Oreina’ | Koldo Almandoz, 2018 |
| ‘Black is Beltza’ | Fermin Muguruza, 2018 |
| ‘Hil Kanpaiak’ | Imanol Rayo, 2020 |
| ‘Erlauntza’ | Mireia Gabilondo, 2020 |

**Pays Basque: conflit, paix et coexistence**
**2022.09 / Cinémathèque Quebecoise / Montreal**

Ziklo honek euskal gatazkaren ikuspegi anitzak eskaintzen ditu, genero ezberdinetatik (komedia, drama, dokumentala...) kontatutako istorioak, 80ko hamarkadatik gaur egunera arteko film aukerakatea baten bidez.

Este ciclo repasa el conflicto vasco desde múltiples miradas y variedad de géneros (comedia, drama, documental...) con una selección de películas desde los 80 hasta nuestros días.

| | |
|---|---|
| ‘La Fuga de Segovia’ | Imanol Uribe, 1981 |
| ‘Yoyes’ | Elena Taberna, 2000 |
| ‘La pelota Vasca’ | Julio Medem, 2003 |
| ‘Asier eta biok’ | Aitor Merino & Amaia Merino, 2013 |
| ‘Lasa eta Zabala’ | Pablo Malo, 2014 |
| ‘Negociador’ | Borja Cobeaga, 2014 |
| ‘Maixabel’ | Iciar Bollaín, 2021 |



LUIS TOSAR
BLANCA PORTILLO
UNA HISTORIA REAL
MAIXABEL
UNA PELÍCULA DE ICÍAR BOLLAÍN
24 DE SEPTIEMBRE EN CINES

# ARTE ESZENIKOAK

## ARTES ESCÉNICAS



# Cinars Web

**2020.09.09 - 13**

Cinars Etxepare Euskal Institutua

Kulunka Teatro, beste 23 konpainiarekin batera, aukeratua izan zen Cinars Web Arte Eszenikoen Nazioarteko Konferentzia Birtualean, aditu-panel baten aurrean, 'André & Dorine' proiektua aurkezteko. Parte hartze hori izan da konpainiak 2022an AEBn egin duen biraren eta 2023 Kanadan zehar egingo duenaren jatorria.

La compañía Kulunka Teatro fue una de las 24 compañías seleccionadas para presentar su proyecto, 'André & Dorine', frente a un panel de expertos en Cinars Web, la Conferencia Virtual Internacional de las Artes Escénicas. Su participación en el evento ha desembocado en una gira internacional en EEUU en 2022 y Canadá en 2023.



# Dantza sorkuntza egonaldia / Residencia de creación en danza

**École de danse contemporaine de Montreal / Montreal**

Ecole de Danse Contemporaine de Montreal | Tabakalera | Dantzagunea | Etxepare Euskal Institutua

Saison Québec – Pays Basque programaren baitan, dantza egonaldiak burutu dituzte Montrealen euskal dantzari eta koreografoek eta Donostia eta Errenterian quebectarrek. Gainera, burututako lanen emaitzak Quebecen eta Euskal Herrian aurkeztu dira. Egonaldi-programaren helburu nagusiak dira artisten garapen profesionala sustatzea, eta beren lana hedatzea; artistei kultur garapenerako tresna berriak ematea; euskal eta quebectar sortzaileen arteko elkartrukea sustatzea; euskal artistak eta beren lana nazioartean sustatzea eta sormen eta produkzio artistikorako sareak garatzea.

En el marco del programa Québec – Pays Basque bailarines/as y coreógrafos vascos/as han realizado residencias de danza en Montreal, y artistas de Quebec han hecho lo propio en Donostia y Errenteria. El resultado del trabajo llevado a cabo se ha mostrado en festivales o centros de creación de Quebec y el País Vasco. Los objetivos principales del programa de residencias son promover el desarrollo profesional de los/las artistas y difundir su trabajo; dotar a los/las artistas de nuevas herramientas para el desarrollo cultural; fomentar el intercambio entre creadores/as vascos/as y quebequeses/as; promocionar internacionalmente a artistas vascos/as y su obra, y desarrollar redes de creación y producción artística.

| | |
|---|---|
| 2019.10.05 - 12.15 | Kanpai |
| 2022.01.11 – 03.11 | Xian Martinez |
| 2023 | Igor Calonge |



# Festival Quartier Danses: Focus Basque

**2022.09.7-18 / Montreal**

Festival Quartier Danses Conseil des arts et des lettres du Québec

Etxepare Euskal Institutua

Festival Quartier Danses 2001. urteaz geroztik irailero egiten den dantza garaikideko jaialdia da. Dantzaren demokratizazioa helburu, artisten aniztasuna, ingurunearen garapen artistikoan parte hartzea, dantza publikoari hurbiltzea eta dantzarako publikoa zabaltzea ditu ardatz nagusi. Quebeceko eszenako artisten emanaldiak aurkezteaz gain, nazioarteko koreografo eta dantzariak gonbidatzen ditu. Sortu zenetik, dantza publikoarengana hurbiltzeko modu sortzaile eta berritzaileak asmatzea eta dantza garaikidea areto tradizionaletatik atera eta ezohiko agertokietan aurkeztea da jaialdiaren ezaugarri nagusietako bat. 2022an jaialdiak euskal dantza garaikidean jarriko du fokua.

Festival Quartier Danses es un festival de danza contemporánea que se celebra cada mes de septiembre desde el año 2001. Con la democratización de la danza como principal objetivo, sus ejes son la diversidad de artística, la participación en el desarrollo artístico del entorno, el acercamiento de la danza al público y la generación de nuevos públicos para la danza. Además de presentar actuaciones de artistas de la escena quebequesa, el festival invita a numerosos/as coreógrafos/as y bailarines/as internacionales. Desde su creación, destaca por proponer formas creativas e innovadoras de acercar la danza al público y por sacar la danza contemporánea de las salas tradicionales y presentarla en escenarios inusuales. En 2022 el festival pondrá el foco en la danza vasca contemporánea.

**Malandain Ballet Biarritz, 'La Pastorale'**

**2022.09.08 / 20:00 / Théâtre Maisonave / Montreal**

**2022.09.09 / 12:00 / Place des Festivals / Montreal**

**2022.09.09 / 13:00 / Place des Festivals / Montreal**

**Malandain Ballet Biarritz, 'Nocturnes'**

**2022.09.10 / 19:00 / Studio Théâtre des Grands Ballets / Montreal**

**Malandain Ballet Biarritz, 'Mozart à deux'**

2022.09.09 / 21:00 / Studio Théâtre des Grands Ballets / Montreal

**Lasala, 'Fight'**

2022.09.11 / 11.00 / Place des Festivals / Montreal

**Lasala, 'Alive'**

2022.09.12 / 11.00 / Place des Festivals / Montreal

**Lasala, 'IU'**

2022.09.13 / 11:00 / Place des Festivals / Montreal

**Osa + Mujika, 'Expectations will not kill you'**

2022.09.13 / 11.00 / Place des Festivals / Montreal
2022.09.14 / 11.00 / Place des Festivals / Montrea
2022.09.15 / 11.00 / Place des Festivals / Montreal

**Proyecto Larrua, 'Larrua'**

2022.09.14 / 14.00 / Fôret Urbaine McCord / Montreal

2022.09.15 / 14.00 / Fôret Urbaine McCord / Montreal

**Proyecto Larrua, 'Baserri'**

2022.09.15 / 12.00 / Place des Festivals / Montreal

2022.09.16 / 12.00 / Place des Festivals / Montreal

## ‘Soka’

**2022 / 2022.09.09 - 23 / Centre des Musiciens du Monde / Montreal**

Association Euskaldunac Québec | EKE | Etxepare Euskal Institutua

Eskuak elkarri emanez plazaratu dira luzaz euskaldunak dantzara: sokan. Belaunaldiz belaunaldi, kultura bat, hitz egiteko hizkuntza propio bat, munduratzeko txoko bat, elkarrekin bizitzeko dantza bat transmititu dute euskaldunek soka-dantzan. Euskal dantza zer den, nork dantzatu duen, nolakoa den eta zergatik XXI. mendearen hastapenean euskaldunek molde berezi horretan dantzatzen jarraitzen duten galdetzen dio bere buruari erakusketa honek. Zergatik ez da eten dantzaren soka zaharra euskaldunen herrian? Nola egiten da sokadantzan globalizazioaren eta komunikazioaren aroan? Horiek dira erakusketa honek plazaratzen dituen hausnarketa batzuk. Erakusketaren irekieran Bilaka dantza taldeak emanaldia eskainiko du.

Cogidos de la mano, en cadena, en una cuerda [soka] se han mostrado en la plaza durante muchas generaciones los vascos. Generación tras generación, los vascos han transmitido en la soka-dantza una cultura, una lengua propia, un punto de partida para abrirse al mundo, una danza para vivir en común. ¿Porque no se ha roto la vieja cuerda de la danza en el País de los Vascos? ¿Cómo se baila la soka-dantza en la era de la globalización y las comunicaciones? Son algunas de las reflexiones que plantea esta exposición. La compañía de danza Bilaka ofrecerá una actuacón en la inauguración de la exposición.

## ‘Dantza’ (Telmo Esnal, 2018)

**2022.09.11 / 18:30 / Musée National des Beaux-Arts du Québec / Montreal**

Festival Quartier Danses | EKE | Etxepare Euskal Institutua

Film hau bizitzaren zikloari buruzko istorio bat da, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa da! Gai unibertsalak, hemen sinbologia berezi batez jantziak. Dantza tradizionalen unibertso hipnotikoari dagokiona. Tradizioari, lurrari, haren jendeari, mitoei eta ohiturei egindako kantu poetiko bat. Izatearen harririari buruzko kontaketa bat.

‘Dantza’ es una historia sobre el ciclo de la vida, de la lucha por la supervivencia. Donde el paso del tiempo viene marcado por el curso de la naturaleza. Y la danza es el lenguaje elegido para contarlo. La música acompaña las rutinas cotidianas; ¡La vida es ritmo! Temas universales, vestidos aquí con una simbología particular. La que representa el hipnótico universo de las danzas tradicionales. Un canto poético a la tradición, a la tierra, a sus gentes, mitos y costumbres. Un relato sobre el milagro de la existencia.



# OFF - Cinars

**2022.11.08 / Salle Pauline-Julien / Montreal**

Cinars   Etxepare Euskal Institutua

Kulunka Teatrok Cinars-en, Montrealgo Arte Eszenikoen Biurtekoan, hartuko du parte. Arte eszenikoen nazioarteko topaketa garrantzitsuenetakoa da. OFF-Cinars atalean ‘André & Dorine’ ikuskizuna aurkeztuko du.

Kulunka Teatro participará en Cinars, la Bienal de las Artes Escénicas de Montreal, uno de los principales encuentros internacionales de artes escénicas. Lo hará en la sección OFF-Ciinars, donde presentará la obra ‘André & Dorine’.

# MUSIKA

## MÚSICA



# Josu Okiñena

**2022.07.15 / 19:30 / Église de Nominingue / Nominingue**

Josu Okiñena pianojoleak euskal konposatzaileen lanetan oinarritutako kontzertua eskainiko du Nomininguen. Aita Donostia, Gabriel Erkoreka, Tomas Garbizu, Alejandro María Olazaran eta Pascal Aldaberen lanak aurkeztuko dizkio entzulego quebectarrari. Emanaldiek kontzertu-hitzaldi formatua izango dute eta konposatzaile hauen partiturak bertakoen eskura jarriko dira.

El pianista Josu Okiñena ofrecerá un concierto en la localidad de Nominingue basado en obras de compositores vascos como Aita Donostia, Gabriel Erkoreka, Tomás Garbizu, Alejandro María Olazarán y Pascal Aldabe. Las actuaciones tendrán formato de concierto-charla y las partituras de estos autores se pondrán a disposición de la comunidad local.



# Centre des Musiciens du Monde

**2022.09.29 – 10.09 / Centre des Musiciens du Monde / Montreal**

Centre des Musiciens du Monde  Etxepare Euskal Institutua

Mikel Etxekopar eta Claudine Arhancet abeslari xiberutarrek egonaldi artistikoa egingo dute Centre des Musiciens du Monde zentroan. Darlene Jerome musikariarekin lankidetzan ariko dira euskal musika tradizionala eta Migm'aq Quebeceko kultura indigenaren arteko nahasketa esperimentatzeko.

Los cantantes xiberutarras Mikel Etxekopar y Claudine Arhancet realizarán una estancia artística en el Centre des Musiciens du Monde. Colaborarán con el músico Darlene Jerome para experimentar con la mixtura entre la música tradicional vasca y la cultura indígena Migm'aq de Quebec.



# Trío Zukan & Quasar Saxophone Quartet

**2021.10.20 – 24 / Chapelle historique du Bon-Pasteur / Montreal**

Groupe Vivier   Etxepare Euskal Institutua

Trío Zukan taldeak, Maria Zubimendi, Gorka Catediano eta Jon Ansorenak osatzen dutena, kontzertua eskaini zuten, bertako Quasar Saxophone Quartet taldearekin. Sortzaile euskaldun zein quebectarren lanez osaturiko kontzertu-programa aurkeztu zuten. Montrealgo kontzertua Gasteizen errepikatuko zuten bi taldeek, azaroaren 15ean, Musikagileak Musika Garaikidearen Zirkuituan.

El Trío Zukan, formado por María Zubimendi, Gorka Catediano y Jon Ansorena, ofreció un concierto junto con el grupo local Quasar Saxophone Quartet, presentando un programa obras de compositores/as vascos/as y quebequeses/as. El concierto de Montreal se repitió en Vitoria -Gasteiz el 15 de noviembre en el Circuito de Música Contemporánea Musikagileak.



# Sigma Project

**2022.10.24 - 26 / Université de Montreal / Montreal**

Sigma Project saxofoi laukoteak hainbat jarduera burutuko ditu Montrealgo Unibertsitatean: ikasle eta musikagileekin topaketa, hitzaldiak eta kontzertuak. Euskal musikagile garaikideen lanak interpretatuko dituzte, hala nola, Ibarrondo, De Pablo, Erkoreka, Lazkano eta Ariasenak.

El cuarteto de saxofones Sigma Project participará en varias actividades en la Universidad de Montreal, donde mantendrán encuentros con estudiantes y músicos, impartirán conferencias y ofrecerán conciertos interpretando obras de compositores vascos contemporáneos como Ibarrondo, De Pablo, Lazkano y Arias.



# M pour Montreal

**2022.11.16 – 19 / Montreal**

M pour Montreal   Etxepare Euskal Institutua

2006an sortua, M for Montréal Quebeceko musika-ekitaldi garrantzitsuenetako bat da, bere jaialdiagatik eta nazioarteko konferentziagatik ospetsua dena. Tokiko eta nazioarteko musika industriaren topagunea den honetan aurten Oreka TX taldeak hartuko du parte.

Fundada en 2006, M for Montréal es uno de los eventos musicales más relevantes de Québec, famoso por su festival y su conferencia internacional. Un punto de encuentro para la industria musical local e internacional que este año contará con la participación de Oreka TX.



# Xabi Aburruzaga: 'Aurrez Aurre'

Xabi Aburruzagak Quebecera bidaiatuko du 2022ko udazkenean 'Aurrez Aurre' bere azken lana aurkeztera,  Yves Lambert musikariarekin batera. Proiektuaren lehen zatia Euskal Herrian burutu zen urrian Legorretan, Getxon eta Gasteizen kontzertuak eskainiz.

Xabi Aburruzaga viajará a Quebec en otoño de 2022 para presentar su último trabajo, 'Aurrez Aurre', junto al músico Yves Lambert. La primera parte del proyecto se llevó a cabo en el País Vasco, con conciertos en Legorreta, Getxo y Vitoria.

# ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK

## ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES

OBSERVATOIRE
DES MÉDIATIONS
CULTURELLES

# Co
# habi
# ter

# COHABITER: Imaginer les médiations culturelles au 21e siècle

**2022.06.01 – 03 / Observatoire des Médiations Culturelles / Montreal**

Observatoire des Médiations Culturelles Bitamine Faktoria Etxepare Euskal Institutua

Sinposio horren helburua da bitartekaritza kulturalek bizikidetzako espazioen, praktiken eta irudimenen ekoizpenean duten zeregina ulertzea. Sinposioaren baitan burututako mahainguru batean Bitamine Faktoriako Helga Massetanik 'Bidasoako Atlas Emozionala' proiektua aurkeztu du. Mugaz gaindiko proiektu antropologiko, artistiko eta literarioa da, eta Bidasoa ibaiaren inguruko alderdirik adierazgarrienak biltzen dituzten hamar koadernotan argitaratu dena.

El objetivo de este simposio es comprender el papel de las mediaciones culturales en la producción de espacios, prácticas e imaginarios de convivencia. En una mesa redonda celebrada en el marco del simposio, Helga Massetani, de Bitamine Faktoria, ha presentado el proyecto 'Atlas Emocional del Bidasoa'. Se trata de un proyecto antropológico, artístico y literario transfronterizo que se ha publicado en diez cuadernos que recogen los aspectos más representativos del entorno del río Bidasoa.




# Frontière

## Pratiques artistiques transfrontalières

# FRONTIÈRE: practiques artistiques transfrontalières

**2022.06.04 / TOPO / Montreal**

Agence Topo | Dare-Dare | Bitamine Faktoria | Etxepare Euskal Institutua

Agence Topo erakundeak, Dare-Dare Montrealgo artista kolektiboa eta Bitamine Faktoriarekin lankidetzan antolatutako topaketa honetan hiru egitasmo aurkeztu dira. Topo-ren 'Frontière' programa, mugaren kontzeptuaren inguruan antolatutako erakusketa eta online proiektuak jasotzen dituena; Dare-Dare kolektiboaren 'Satellite' argitalpena, mugaz gaindiko esplorazio artistikoen programa baten lehen urratsak biltzen dituena; eta Bitamine Faktoriaren 'Bidasoako Atlas Emozionala', mugaz gaindiko proiektu antropologiko, artistiko eta literarioa.

En este encuentro organizado por Agence Topo, en colaboración con el colectivo artístico de Montreal Dare-Dare y Bitamine Faktoria, se han presentado tres proyectos. El programa 'Frontière', de Topo, que recoge exposiciones y proyectos online organizados en torno al concepto de frontera; la publicación 'Satellite' del colectivo Dare-Dare, que recoge los primeros pasos de un programa de exploraciones artísticas transfronterizas; y el 'Atlas Emocional del Bidasoa' de Bitamine Faktoria', un proyecto antropológico, artístico y literario transfronterizo.

# EUSKAL IKASKETAK ETA EUSKARA

## ESTUDIOS VASCOS Y EUSKERA


FAVORIT

# Besteen Ahotsa / La voix des autres

**2021.10.13 - 14 / Online**

Université Laval PEN Québec Euskal PEN Kluba Etxepare Euskal Institutua

'Besteen Ahotsa. Eleaniztasuna eta literatura: Euskal Herria eta Quebec' nazioarteko kongresu akademikoan, osasun egoeragatik online egin zena, hizkuntza ez hegemonikoetako literatura eta hizkuntza-aniztasuna jorratu ziren. Helburua periferiatik edo bazterretik garatutako literaturen ikerketa konparatua sustatzea izan zen, euren herrialdeetan lehentasunezko literatura merkatuak ez dituzten hizkuntzetan sortutako literaturak aztertzeko. Era berean, jardunaldiek Euskal Herriko eta Quebeceko errealitateak aztertu zituzten literaturaren ikuspegitik.

El congreso académico internacional 'Besteen Ahotsa. Eleaniztasuna eta literatura: Euskal Herria eta Quebec' ('La voz de los otros. Multilingüismo y literatura. País Vasco y Quebec'), que se celebró online debido a la situación sanitaria, abordó la literatura en lenguas no hegemónicas y la diversidad lingüística. El objetivo fue promover la investigación comparada de las literaturas desarrolladas desde la periferia o los márgenes para analizar las literaturas creadas en lenguas que no tienen mercados literarios prioritarios en sus países. Asimismo, las jornadas analizaron las realidades del País Vasco y Quebec desde el punto de vista literario.



# Elbira Zipitria Fellowship

**2022.09.09 – 14 / McGill University / Montreal**

McGill University CRIEM Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutuak euskal ikasketen katedra berri bat jarriko du martxan McGill Unibertsitatearekin batera. Katedraren irekierarako Elbira Zipitria ardatz izango duen ekitaldi akademiko bat antolatuko da, batetik, euskarazko irakaskuntzaren aitzindari eta sustatzaile izan zen maistra honen soslaia McGill Unibertsitatean eta CRIEM-en ezagutarazteko eta, bestetik, Quebec eta euskal errealitatean hizkuntzen erabilerari lotuta gaurkotasuna duten gaiak lantzeko. Idoia Fernandez (UPV/EHU), Miren Azkarate (UPV/EHU) eta Paulo Suberbiolak (Soziolinguistika Klusterra) hartuko dute parte, Quebeceko hainbat adituekin batera.

Etxepare Euskal Institutua pondrá en marcha una nueva cátedra de estudios vascos junto a la Universidad McGill. Para la apertura de la cátedra se organizará un acto académico centrado en la persona de Elbira Zipitria con el fin de dar a conocer en la Universidad McGill y en el CRIEM la figura de esta maestra que fue pionera y promotora de la enseñanza en euskera. En el mismo también se abordarán temas de actualidad relacionados con el uso de las lenguas en las realidades de quebequesa y vasca. Participarán Idoia Fernández (UPV/EHU), Miren Azkarate (UPV/EHU) y Paulo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra), junto a varios/as expertos/as de Quebec.

Québec

CALQ

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

BASQUE.

ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA